

Egilea:	Mariasun Landa
Izenburua:	Amona, zure Iholdi
Urtea:	2000 urtean.
Argitaletxea:	Erein (Donostia).
Protagonista nagusia	Iholdi, neska gaztea.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> •Martin, Iholdiren lengusua. Mutil bihurria eta zirikatzailea. •Amona, zeruan aurkitzen dena. Iholdiri gomendioak ematen dizkiona.
Non gertatzen da:	Ez du zehazten. Bertatik hegazkinak pasatzen direla eta laku bat duela zehazten den bakarra da.
Idazlea pozizionalizatzen da?	<p>Baietz esango nuke. Armekin ibiltzea gustuko duena tentela, bihurria, gaiztoa eta xantaiagilea da. Aldiz, armak gustuko ez dituen eta lakura botatzea eta jokoarekin amaitzea erabakitzen duena zentsuduna, bihotz onekoa eta argia da.</p> <p>Gainera, amonak, zeruan dagoen eta guztia ikusteko gai den pertsona batek, nolabait aholkatzen dio Iholdiri arma lakura botatzea eta jokoarekin amaitzea.</p> <p>Nire ustez, idazleak “Eta ni mutu. Neska pixontzi bat naizelako” esaldiarekin hurrengo kritika egiten du: Terrorismoan dabilen pertsona batzuek bertan jarduten dutela ez direlako gai aurkakoa esateko. Ardiek txakurra jarraitzen duten moduan.</p>
Hildakorik	Ez.
Atentaturik	Ez.
Iheslaririk	Ez.
Sufrimendua nork pairatzen du?	<ul style="list-style-type: none"> •Iholdik. Martinek Iholdi jolastera behartzen du xantaia egitea dela medio. Iholdi ez da lasai bizi, bere sekretua azaleratu egingo denaren beldur. Nahi ez duena egitera behar dute, horrelako egoeretan sufritzen da, horregatik buruari bueltak ematen dizkio eta amonari aholkua eskatzen dio.
Informazio tresnak:	Xantaia.
Erlazioa bi bandoen artean:	Ez.
Zein da bando “maltzurra” edo kaltearen eragilea?	Banda terrorista. Ez du aipatzen zein den bando hori. Liburu honek terrorismoa kritikatzeko du, orokorrean, izenik eman gabe.
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	Gutxi, baina zer edo zer baduela esango nuke. Eskolak eragina izan du lehengusuen arteko erlazioan. Izan ere, irakasleak Iholdiri bere lehengusuarekin denbora gehiago egoteko eta berari laguntzeko agintzen dio.

Egilea:	Pako Aristi.
Izenburua:	Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?
Urtea:	1996 urtean.
Argitaletxea:	Elkar (Donostia).
Protagonista nagusia	<ul style="list-style-type: none"> • Leonidas Kafetzoupulou- etxez etxe kandelak saltzen dituen gizona, eta istorioaren narratzailea. • Baptiste Lizarraga- lapurra. Kanpaia lapurtzeko plana antolatzen eta lapurketan pisu gehien duena. • Konstantin Kafetzoupulou- urtzailea, lapurretan parte hartzen duena. Leonidasen aitona.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> •Jazinto Olariaga_ lapurretan parte hartu zuen gizona, diruaren beharrean dagoena. •Mendoza- liberaleen jenerala. •Santa Kruz apaiza- karlisten buruzagia. •Familia (Unai, Mireia, aita eta ama)- istorioa entzuten dutenak. •Maria Catalina- Bentako jabea eta urtzailearekin bukatzen du, hau da, Leonidasen amona da.
Non gertatzen da:	Baionan, Beizaman (Gipuzkoan), Berastegin eta Urrusa mendian.
Idazlea pozizionalizatzen da?	Ezetz esango nuke. Istorio bat kontatzen da, guda karlista bat testuingurua izanik. Alde batetik karlistak, bestetik lapurrak eta hirugarrenik liberalak. Idazlea guztiz neutrala da politikari dagokionez.
Hildakorik	Bai; 24 liberal, 10 karlista eta 4 lapur.
Atentaturik	Ez.
Iheslaririk	Bai; Baptiste Lizarragak, eta beste bi lapurrek ihes egiten dute. Haatik, harrapatzen eta hil egiten dituzte.
Sufrimendua nork pairatzen du?	•Jazintok- Baptistek Jazinto iruzur egiten du, eta egiaren berri denean behartzen dute lapurketarekin jarraitzea. Egoera latzean bizi da, diru barik.
Informazio tresnak:	<ul style="list-style-type: none"> • Baptista gezurretan trebea da, eta informazioa ematen duen bakoitzean iruzur egiten du. • Mehatxuen bidez besteengandik informazioa lortzen dute; bai pistola, bai heriotza dela medio, mehatxu eginez.
Erlazioa bi bandoen artean:	Ez.
Zein da bando “maltzurra” edo kaltearen eragilea?	Lapurrak. Idazlea ez denez pozizionalizatzen, ezin da zehaztu nor den bando maltzurra.
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	Ez.

Egilea:	Jose Luis Zabala
Izenburua:	Harri barruko bihotz-borrokak.
Urtea:	1999 urtean.
Argitaletexea:	Elkar (Donostia).
Protagonista nagusia	Jakes (25-30 urte tartean)- abesteko gogoia galdu duen kantautorea. Xabat (gaztea, ikasketak bukatzen)- barruan daukan guztia eman nahi duen ziklista. Maddi (gaztea)- ETA bandaren partaidea, espetxeratzen eta torturatzen dute.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> •Jexux- Jakes abeslariaren managerra. •Izeba Bitoriana- Jakesen izeba, oso maite eta miresten zuena. •Osaba Tomas- Xabat txirrindulariaren osaba, momentu gogorretan nahiz errazetan bere aldean dagoen pertsona garrantzitsua. •Luziano- Xabaten txirrindulari taldearen zuzendaria. •Naiara- Xabat Naiarataz maiteminduta dago. Naiararen aita preso egon zen terrorismoa dela eta. Gainera, Maddiren (hirugarren protagonista) lagun oso ona da. •Txuspi eta Ander- Maddirekin batera espetxeratu eta torturatu zituzten. Preso politikoak.
Non gertatzen da:	Azkoitian gehienbat. Azkoitian, Bilbon, Alcalako kartzelan eta Coruña beste batean.
Idazlea pozizionalizatzen da?	<p>Baietz esango nuke, ez baitu egoera edo gertaera bat objetiboki deskribatzen. Liburuko esaldiak oso adierazgarriak dira:</p> <p>Jakes: <i>Niri inbidia ematen didana: mobida batean buru-belarri sartuta daude, jo eta ke irabazi arte, berek dioten bezala, eta hori ederra da. Kontu horiek urrun geratzen zaizkit... Indibidualistegia naizelako? Bide batzuk, gainera, ez zaizkit egokiak iruditzen. Maddiri egin diotena ikaragarria da, baina gauza ikaragarri asko gertatzen dira herri honetan, eta ez dira beti poliziak eta agintariak horien errudunak.</i></p> <p>Xabat: <i>Gustatuko litzaidake haietako bat izatea. Kriston meritua dute, horiek bai ari direla barruan duten guztia ematen, bete-betean ematen gainera, trukean deus ere espero izan gabe, ez osperik, ez dirurik, ez plazerrik, ez ezer.</i></p> <p>Osaba Joxe Joakinek (Maddiren osaba): <i>Herri bat gaitun, eta batasunik eta diziplinarik gabe</i></p>

	<p><i>sekula ez dinagu ezer irabaziko, elkar izorratu besterik ez dinagu egingo.</i></p> <p>Maddi: <i>Herria, batasuna, diziplina... Ez dakit. Akaso arrazoi izango du osaba Joxe Joakinek, baina ez nau konbentzitu. Zaila da erabakitzea. Nor sentitzen da ezertan seguru bere ustetxoen txalupan?</i></p>
Hildakorik	Ez. Izeba Bitoriana hil egiten da, baina heriotza naturala dela medio.
Atentaturik	Bai; Molotov-koktelekin Aldi Baterako Laneko Enpresa bateko bulegoaren erretegia.
Iheslaririk	Ez.
Sufrimendua nork pairatzen du?	<ul style="list-style-type: none"> • Xabatek, Naiarak eta Maddik, Ander eta Txuspiren familiak eta gainerako lagun guztiek. • Maddik, Txuspik eta Anderrek. Torturatuak izan dira eta lau pareten artean luzaroan egongo dira. • Jakesek, bihotz puskak bidetik eta beste batzuen etxean uzten joan baita bizitzan zehar. Orain hutsik dagoela sentitzen du, ez duela motibaziorik edo helburu desiraturik. • Xabatek, barruan daukan guztia eman nahi du, baina borrokak edo zalantzak direla eta ezinean dabil.
Informazio tresnak:	<ul style="list-style-type: none"> • Tortura, euskal presoek jasaten dituztenak, guardia zibilek nahi duten informazioa eskuratzeko. • Telebista/Berriak. Gobernuaren menpe dagoen tresna edo arma da. Eurek nahi duten informazioa eta erara zabal dezakete. Jendea kontrolatu, mugitu, apaldu, liskarrak sortu...
Erlazioa bi bandoen artean:	Ez.
Zein da bando “maltzurra” edo kaltearen eragilea?	Guardia zibilak, gobernu espainola eta ertzaina.
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	Ez.

Egilea:	Patxi Zubizarreta.
Izenburua:	Marigorringoak hegan.
Urtea:	1994 urtean.
Argitaletxea:	Edebe- Giltza (Bilbao).
Protagonista nagusia	<ul style="list-style-type: none"> • Amona Paula. • Neskabila bat (Ez du izena zehazten). • Tximeleta. • Euria.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> • Marigorringoak. • Zorrotzailea. • Aita-ama.
Non gertatzen da:	Espainiako herri batean, ez du zehaztasun handirik ematen.
Idazlea pozizionalizatzen da?	Baietz esango nuke. Tximeletaren irudierekin terrorismoa kritikatu du, helburuak ez duela bidea justifikatu. Hau da, liburu honek hurrengo hausnarketa edo galderak proposatu ditu; euria egitea gustatuko litzazuke, horren beharra dugu, baina horretarako edozer egingo genuke? Norbait hil ere egingo genuke helburu hori lortzeko?
Hildakorik	Ez. Ipuineko protagonista zalantzan dago, baina azkenean ez du hilketa burutzen.
Atentaturik	Azkenean ez da atentaturik burutzen.
Iheslaririk	Ez.
Sufrimendua nork pairatzen du?	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko herritarrak, ipuineko protagonista barne. Euriaren beharra (sinbolikoa da, independentzia edo beste edozer ere adierazi daiteke) baitaukate eta ez da ailegatu.
Informazio tresnak:	<ul style="list-style-type: none"> • Amona Paulak ilobari kontatu dizkion esaketa zaharrak edo eguraldiarekin erlazioa duten esamesak.
Erlazioa bi bandoen artean:	Ez.
Zein da bando "maltzurra" edo kaltearen eragilea?	ETA. Kasu honetan helburua lortzeko (euria egin dezala) zer edo zer egingo lukeen banda, hil egin ere (tximeleta) egingo lukeena.
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	Ez.

Egilea:	Xabier Agurrutza.
Izenburua:	Pike eta Pitito.
Urtea:	1994 urtean.
Argitaletxea:	Txalaparta (Tafalla) - (Axuri beltza-edizioa).
Protagonista nagusia	<ul style="list-style-type: none"> •Pike (Mikel)-Goienetxe baserriko senitarteko txikiena (umea). •Pitito (Fermintxo)- Pikereren izebaren mutilaguna, osaba.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> •Pilonga- Pititoren neskalaguna. •Pirita (Maite)- Pikereren ama. •Zeperino- Aitona. •Neskazari- Zeperinoren seme nagusia.
Non gertatzen da:	Berriainen (Goienetxeko baserrian), Euskal Herriko herri txikian.
Idazlea posizionalizatzen da?	Baietz esango nuke. Idazleak ipuinen bitartez kritika zorrotza egiten die agintariei, politikariei, poliziariei eta guardia zibilariei. Gainera, Pikeri kontatzen dizkion ipuinetan (potoloterriaren ipuina adibidez) euskal gudariak dira kaltetuak, zapalduak eta arrazoia daukatenak.
Hildakorik	Euskal Herriko gatazka politikoarekin erlazioa duen hildakorik ez.
Atentaturik	Ez.
Iheslaririk	Bai. Pititoren lagun batek bere bila jotzen du Goienetxe baserrira. Bi lagun atxilotu dituztela eta alde egin behar dutela adierazten dio. Arineketan agur esaten die Pike eta neskalagunari, lur jota alde egiten du.
Sufrimendua nork pairatzen du?	<ul style="list-style-type: none"> • Pitito- maite duen jendearengandik alde egin behar duelako eta ezin dituelako ikusi. •Pike eta Goienetxeko senitarte guztiak- ezin baitute Pitito ikusi. • Berriaingo herritarrak- Pitito bueltatzen denean hori ikusten da, egiten dioten harrerari esker. • Pititoren hiru lagunak (bi atxilotuak eta berarekin alde egiten duena)- euren bizitza guztiz aldatzen delako momentu batetik bestera.
Informazio tresnak:	<ul style="list-style-type: none"> • Ipuinak- Pitito Pike ideologizatzen saiatzen da, berak dituen baloreak eta iritziak transmititzen dizkio.
Erlazioa bi bandoetako artean:	Ez dago inolako erlazorik.
Zein da bando “maltzurra” edo kaltearen eragilea?	Politikariak edo agintariak eta polizia edo guardia zibilak.
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	Bai. Pititok eta Pikek denbora pila bat pasatzen dute elkarrekin. Pititok Pikeri mila gauza erakusten eta irakasten dizkio, bere hezkuntzan eta izaeran eragin zuzena izanik.

Egilea:	Patxi Zubizarreta.
Izenburua:	Pikolo.
Urtea:	2008 urtean.
Argitaletexea:	Alberdania.
Protagonista nagusia	Manuel, Caceresetik Euskal Herrira etorritako haurra.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> •Eba- Manuelen laguna eta euskal preso (ETA-ko gudaria) baten alaba. •Kepa- Zapaltzailea, Manueli beti mehatxuka dabilena eta maltzurkeriak egiten dizkiona. Ebaren neba da. •Maisua- Atentatuaren konplizea, informazioa eskuratzen duena. •Manuelen aita- Guadia zibila.
Non gertatzen da:	Larrañetan, Euskal Herriko herri txikia.
Idazlea pozionalizatzen da?	<p>Baietz esango nuke. Idazleak objetiboki deskribatzen du Euskal Herriko herrietan bizi izan den egoera. Baina pertsonaia batzuen jarrerei esker, errespetuaren alde pozionalizatzen dela esango nuke;</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eba, Kepa eta ama aita kartzelara ikustera doazenean, Kepak aitari Pikolorena (Ebak guardia zibil baten semearekin erlazio hurbila duela) kontatzen dio. Baina honen jarrera nabarmentzekoa da: <i>“Kepak aita haserretzea espero omen zuen eta bere alde jartzea, baina aita ez zen haserretu eta ez zenb ere alde jarri. Eta esan zuen ez dituela poliziak maite, baina pertsonak errespetatu behar direla, eta polizien seme-alabekin berdin”</i>. • Atentatua gertatu eta gero eta Caceresera itzuli baino lehen, Manuelek aitari azkenengo alidz eskolara joatea eskatzen dio. Teilatura igotzen da eta Keparen diaboloa (aurrango egunean eskolako teilatuan trabatu zitzaion) lortzen du. Azkenengo aldiz ikaskideak agurtzen ditu eta Ebari nebaren diaboloa ematen dio, Kepari itzul diezaion. • Kepa, euskal preso baten semea eta Ebaren neba, kuartelaren inguruan zegoen furgonetan zartatu zutenean. Horri dela eta ospitalean bukatzen du. Keparen egoera larria da, aurrera egingo du baina traumatismoa pairatzen du. • Manuelek eta Ebak duten erlazioa oso ona da, elkar maitatzen dute. Beraiek alde batera uzten dituzte aurreiritzi guztiak. Aurkako

	<p>errealitatetik etorri arren, oso lagunak bilakatzen dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Manuel poztu egiten da Kepak atentatua gertatu ostean existitzen jarraituko duela jakiterakoan. Kontuan izan behar dugu, Kepa bere etsaia izan da eta bere erruagatik senperrenak ikusi ditu. Hala ere, poztu egiten da Kepari ondo joango zaiolako. Idazlearen mezu garrantzitsua suposatzen du honek.
Hildakorik	Bi; Paco eta Lupus- Guardia Zibilak.
Atentaturik	Bai; Kuartel etxea lehertzen dute kotxe-bomba bat dela medio.
Iheslaririk	Bai. Kuartel etxeko atentatua gertatu ostean, Manuelen irakasleak herritik alde egiten du arrastorik utzi gabe.
Sufrimendua nork pairatzen du?	<ul style="list-style-type: none"> • Ebak eta Manuelek. Erlazio bikaina sortu dute eta ulertzen ez duten kanpoko faktore batzuegatik ezin izango dute jarraitu, Manuel Caceresera bueltatzen baita. • Manuelen aitak. Lankideak galtzen ditu eta horrelako bizipenek arrasto txarrak eragiten dituzte beti. • Maisuak. Manuelek nahi gabe aita deitzen dionean, maisua leihora hurbiltzen da eta pentsakor geratzen da. Eszena horrek segurtasun osoaren eza islatzen du.
Informazio tresnak:	<ul style="list-style-type: none"> • Manuel erabiltzen dute. Maisuak bidaltzen dizkion etxerako lanei esker informazioa eskuratzen dute.
Erlazioa bi bandoen artean:	Bai; Eba eta Manuel.
Zein da bando "maltzurra" edo kaltearen eragilea?	ETA.
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	<p>Bai, izugarrikoa gainera. Irakasleak Manueli bidaltzen dizkion etxerako lanei esker informazioa lortzen du; aita eta aitaren lankideen lan-ordutegiak, kuartelaren instalazioak eta planoen irudia, txanden aldaketak, zaintzen ordutegia...</p> <p>Beraz, ipuin honetan hezkuntzak badu zeresanik, atentatuan parte hartzen baitu; Irakasleak ETA laguntzen du, informazioa eskainiz.</p>

Egilea:	Xabier Mendiguren.
Izenburua:	Txakurraren alaba.
Urtea:	2000 urtean.
Argitaletxea:	Elkar (Donostia).
Protagonista nagusia	<ul style="list-style-type: none"> • Teresa Marquez- 16 urteko neska, Leonen jaiotakoa, Zaragozan bizitakoa eta Donostiara etorritakoa. • Teresaren aita, Paco- Guardia zibila. • Andoni- Teresaren ikaskidea, abertzalea eta militantea.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> • Teresaren ama- etxekoandrea, etxetik ia ez da ateratzen. • Koldo- Teresaren klasean dago euskaltegian. Koldo militantea da eta espetxeratzeko dute kale borrokan parte hartu duela uste izanagatik. Koldo libre uzten dutenean, Teresak harreran parte hartzen du. • Carmen, Larraitz, Pablo, Nerea, Frederic, Marcos... Klaseko ikaskideak. • Yolanda- Gurasoen lagun batzuen alaba. • Rosa, Marisa, Ruth eta Salva- Zaragozako lagun maitatuak. • Elena, Juli, Juanma, Juankar, Marta, Karmele, Pili eta Aurelio- Euskaltegiko ikaskideak. • Edurne- Euskaltegiko irakaslea. • Mikel- ikastetxeko zuzendaria. • Esteban- Larraitzen neba, preso dago Espainiako kartzelaren batean, terrorismoan parte hartu izanagatik. • Fran- Teresaren neba. 20 urte ditu, Historia Leonen ikasten du eta Asturias aldeko mendietan rafting-irakasle moduan lan egiten du asteburuetan eta udan zehar.
Non gertatzen da:	Donostian.
Idazlea posizionalizatzen da?	<p>Baietz esango nuke. Pertsonaiek gobernuari eta guardia zibilei kritika latzak egiten dizkieten heinean, abertzaleekiko eta terrorismoarekiko desadostasun gutxi batzuk agertzen dira.</p> <p>Nork kritikatu du molotov koktekin izandako gertaera? Ikastetxeko zuzendariak. Eta zein da ikasleek zuzendariarekiko duten iritzia? Fatxa hutsa dela. Nork azaltzen ditu abertzaleekiko desadostasun gutxi batzuk? Batxilergoa gaztelaniaz ikasten ari diren gutxi batzuek.</p> <p>Idazlearen posizionatzeaz gain, Teresa pertsonaiaren bitartez iritzi pertsonal eta garrantzitsua adierazi nahi duela uste dut; <i>“Gauza askoren nahasketa nintzen ni, eta askoz gehiago</i></p>

	<i>nahastuko zitzaizkidan gero, baina inoiz ez nuen onartuko neure izatea dimentsio bakarrera mugatzea, eta ni inorentzat txakurraren alaba izatea</i> ". Pertsona bakoitza bere nortasunaren eta pentsamenduen jaun eta jabe da, jaioterriak edo familiak ez lukete eraginik izan behar.
Hildakorik	Ez.
Atentaturik	Bai. Ikastetxean tolerantzia astea ospatu baino lehen, juxtu aurreko asteburuan ezezagun batzuek molotov koktelak bota dituzte zenbait eraikin ofizialen aurka: Laneko Ministerioa, Hazienda Ordezkaritza...
Iheslaririk	Ez.
Sufrimendua nork pairatzen du?	<ul style="list-style-type: none"> • Larraitzek. Bidai oso luzeak egin behar ditu anaia ikusteko, Jaenen preso baitago. Gainera hamabost minutu baino ez du anaia ikusteko aukera. • Teresak- Teresak etengabe gatazka psikologikoak ditu. Jakin mina batzuetan, beldurra beste batzuetan, desadostasuna, adostasuna, gorrotoa... Bere aitak egiten duena deskubritzen duenean, izugarritzko iraina edo gorrotoa pairatzen du. <p>Honekin batera, Teresak, txakurraren alabak, euskal presoek sufritzen duten berdina pairatzen du, maitatzen duen lagunen urruntasuna. Ezin ditu ikusi, bisitatu, aitak agintzen duelako, aita autoritate hutsa delako.</p> <p>Aitak gutunarena deskubritzen duenean, Teresa jipoitzen du. Ondorengo asteetan ezin da kalera irten, etxean preso mantentzen du aitak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Teresaren aitak- Pacok euskal presoak torturatzen ditu, nagusien aginduz. Horrek dakarren pisua eta zama psikologikoa latza da. Teresak hura deskubritzen duenean, aitak kargua uzten du eta bulegoetan hasten da lanean.
Informazio tresnak:	Tortura eta biztanle ororen kontrola.
Erlazioa bi bandoetakoan artean:	Bai. Izan ere, liburu honek bi bandoetakoan artean dagoen erlazioaz hitz egiten du; Teresak, txakurraren alabak, Andoni, Koldo, Juanma, Larraitz eta Estebanekin duen erlazioaz.
Zein da bando "maltzurra" edo kaltearen eragilea?	Guardia zibilak eta gobernua.
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	Bai. Ikastetxean ekitaldiak prestatzen eta burutzen dituzte "tolerantziaren astea" izendatuz. Behin eta berriz ikasle askok borroka hezkuntzarekin erlazionatzen dute, zuzendariaren jarrera eta berak hartzen dituen erabakiekin adibidez.

Egilea:	Javi Cilero.
Izenburua:	Eddy Merckxen gurpila.
Urtea:	1994 urtean.
Argitaletxea:	Erein (Donostia) (Zarauzko udalak ere parte hartzailea).
Protagonista nagusia	Hamaika-hamabi urte dituen mutil kalezalea. Eddy Merckx oso gustoko du eta haren zale sutsua da. Joxe ere asko miresten du eta gizon harengan izugarrizko interesa du. Liburuak ez du protagonistaren izena aipatzen.
Bigarren mailako protagonistak:	<ul style="list-style-type: none"> •Joxe- Andaluziatik Bilbora etorritako gizon trebea. Protagonistaren auzokidea eta txirrindularitzaren zale hutsa. •Miren Aburto- Joxeren atzean dabilen neska eta auzoko kontakatilua. •Maritxu- Protagonistaren auzoko neskatila ederra da. Protagonistari klase partikularrak ematen dizkio, hori esker Joxe ezagutu eta berarekin maitasun harremana bizitzen du. •Eddy Merckx- Txirrindulari profesionala eta ospetsua, Tourrak irabazten dituen horietako bat. •Maritxuren senarra- elizara astebururo joaten den gizona, estatus soziopolitiko ona dauka. Protagonistaren familiari laguntza garrantzitsua eskaintzen dio.
Non gertatzen da:	Bilbon.
Idazlea pozizionalizatzen da?	Ezetz esango nuke. Idazleak frankismoaren azkeneko urteetan ageri den egoera soziopolitikoaren ezagutzera ematen du liburu honen bitartez, modu guztiz objektiboan. Eddy Merckxen gurpila irakurri ondoren idazlearen iritzia edo kontakizun honetako alderdi maltzurra ez dakizkit zein diren. Nik neuk nire iritzi propioa sor dezaket baina idazlearen iritzia faltan botatzen dut, guztiz neutrala baita.
Hildakorik	Ez.
Atentaturik	Ez.
Iheslaririk:	Ez.
Sufrimendua nork pairatzen du?	<ul style="list-style-type: none"> •Liburuaren protagonistak. Joxeren atxiloketaz jabetu bezain laster, hara jo zuen eta autoa jarraitu zuen Joxeri agur esateko. Autoa galdu zuen, hondartzara abiatu zen amorru bizian eta denbora luzaroan desiratutako bizikleta hura ibaira bota zuen umore txarrez. Orduetik aurrera ez zuen berriro ere bizikleta bat hartu. •Maritxuk. Gurasoek Joxe begitan zuten, ez zuten erlazioa baimentzen. Horregatik izkutuan elkar topatu behar zuten eta Maritxu beste gizon batekin ezkontzera behartuta dago.

Informazio tresnak:	<ul style="list-style-type: none"> • Auzoan salatariak daude, kontakatiluan dabilzanak. Miren Aburto adibidez, protagonistak Maritxuren senarrarekin hitz egiten ikusten du, beti azpikeriatan jarduten zuen bezala. Elkarrizketa horrek Joxeren atxiloketa suposatu zuen?
Erlazioa bi bandoen artean:	<p>Bai; Auzoan, errepublikaren edo komunismoaren edo anarkismoaren edo fransismoaren aldekoak zeuden. Idazleak azaltzen duenez, salaketak burutzen ziren eta auzokide batzuk kartzelan zeuden preso.</p>
Zein da bando “maltzurra” edo kaltearen eragilea?	<p>Idazlea ez denez pozizionalizatzen, ezin da zehaztu.</p>
Hezkuntzak badu eraginik borrokan?	<p>Frankismo garaian himnoa kantatu beharra zuten, eta hala kontatzen du protagonistak.</p> <p>Beraz, baietz esan daiteke.</p>